



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2018ko urtarrilaren 22a

7. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da barne-deribazioko protokolo bat ezar dezan Bechçet-en gaixotasunak ukitutakoei diagnostikoa eta tratamendu lasterra bermatze aldera. Osasun Batzordeak onetsia (2. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernuak premiatzen da zuzen dezan gidabaimenatarako aztertzaileren kopurua dela-eta dagoen konparaziozko bidegabekeriako egungo egoera. Garapen Ekonomikoko Batzordeak onetsia (3. or.).

G S A I L A:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Foru parlamentarien ordainsariak 2018ko ekitaldirako (4. or.).
- Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren ordainsariak 2018ko ekitaldirako (5. or.).
- Foru parlamentarien bidaia ofizialengatiko ordainsariak 2018ko ekitaldirako (5. or.).
- Foru parlamentariak bilkuretara bertaratzearen truke 2018an jasoko dituzten ordainsariak (6. or.).
- Parlamentu-taldeek 2018an jasoko dituzten diru-sariak (7. or.).
- Nafarroako Parlamentuko behin-behineko langileen ordainsariak 2018ko ekitaldirako (7. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da barne-deribazioko protokolo bat ezar dezan Behçet-en gaixotasunak ukitutakoei diagnostikoa eta tratamendu lasterra bermatze aldera.

OSASUN BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak, 2018ko urtarrilaren 12an egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da barne-deribazioko protokolo bat ezar dezan Behçet-en gaixotasunak ukitutakoei diagnostikoa eta tratamendu lasterra bermatze aldera".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Barne-deribazioko protokolo bat ezar dezan Behçet-en gaixotasunak ukitutakoei diagnostikoa eta tratamendu lasterra bermatze aldera. Protokolo hori Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko baliabide orokor zein espezializatuetakoa profesionalak eginen dute, gaixotasunak ukitutako pertsonen elkarteekin lankidetzarekin.

2. Behar diren giza baliabideak eta materialak eta deribazio-ibilbideak ezar ditzan, Behçet-en gaixotasuna duten pertsonei ahalbidetze aldera behar diren azterketak egin dakizkien eta osasun arretako guneetan tratatuak izatea.

3. Behçet-en gaixotasuna duten pertsonei berma diezaien behar diren material eta tratamendu guztiak eskuratzea, gaixotasun horrek berezkoak dituen konplikazioei aurre egin ahal izateko.

4. Baliabide aski eman ditzan gaixotasun hori ikertzeko, eta bultza dezan prestakuntza-gune desberdinetan (unibertsitatean, ikerketa-institutuetan...) prestakuntza-programak bultzatzea osasun arloan lan egiten duten profesional guztientzat.

5. Hau guztia gainontzeko gaixotasun arraroei zabaltzea".

Iruñean, 2018ko urtarrilaren 12an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da zuzen dezan gidabaimenatarako aztertzaileen kopurua dela-eta dagoen konparaziozko bidegabekeriako egungo egoera.

GARAPEN EKONOMIKORAKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Garapen Ekonomikorako Batzordeak, 2018ko urtarrilaren 16an egingandako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da zuzen dezan gidabaimenatarako aztertzaileen kopurua dela-eta dagoen konparaziozko bidegabekeriako egungo egoera”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“1 Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du zuzen dezan gidabaimen aztertzaileen kopurua dela-eta dagoen konparaziozko bidegabekeriako egungo egoera, hala-ko moduan non Nafarroako Foru Komunitateari gutxienez ere zortzi aztertzaile-postu esleituko

baitizkio pasa den abenduan egin zen lan eskaintza publiko irekian jada publikoki iragarri direneta-tik.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du egin beharreko izapide guztiak azkartu ditzan, lan eskaintza publiko hori lehenbailehen egite aldera; bien bitartean, aztertzaile ibiltarien eta zerbitzu eginkizunetakoan plantillatik gaurko egoera konpontzeko behar adina aztertzaile esleitu eta Nafarroan modu iraunkorrean egonen direla ziurtatuko du, harik eta aipatutako lan eskaintza publikoko lanpostuak betetzen dituzten pertsonak ordezkatzeko dituzten arte”.

Iruñean, 2018ko urtarrilaren 18an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Foru parlamentarien ordainsariak 2018ko ekitaldirako.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko urtarrilaren 15ean eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuak emandako txostena ikusirik, talde parlamentarioen eta foru parlamentarien elkarteen eledunek bidezkoa jotzen dute foru parlamentarien ordainsariak 2018ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez igotzea, Estatuako legediak sektore publikoaren zerbitzuko langileentzat 2018rako ezartzen duen gehieneko gehikuntza globalaren zenbatekoan.

Foru parlamentarien ordainsariei buruzko arauetan eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 15., 17. eta 37. artikuluetan xedatutakoari jarraikiz, hona ERABAKIA:

1. Ezartzea foru parlamentarien ordainsarietako gehikuntza izanen dutela, 2018ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez; hain zuzen ere, Estatuako legediak sektore publikoaren zerbitzuko langileentzat 2018rako ezartzen duen gehieneko gehikuntza globalaren zenbatekoan.

2. Onestea ezen lanaldi osoko araubideari atxikitako Mahaiko eta Eledunen Batzarreko kide diren foru parlamentarien 2018. urterako ordainsari gordina 56.718,62 eurokoa izanen dela.

3. Onestea ezen lanaldi osoko araubideari atxikitako gainerako foru parlamentarien 2018. urterako ordainsari gordina 50.415,40 eurokoa izanen dela.

4. Onestea ezen lanaldi osoko araubideari atxiki gabeko Mahaiko eta Eledunen Batzarreko kide diren foru parlamentarien 2018. urterako ordainsari gordina 42.538,86 eurokoa izanen dela.

5. Onestea ezen lanaldi osoko araubideari atxiki gabeko gainerako foru parlamentarien 2018. urterako ordainsari gordina 37.811,48 eurokoa izanen dela.

6. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2018ko urtarrilaren 15ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren ordainsariak 2018ko ekitaldirako.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko urtarrilaren 15ean eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuak emandako txostena ikusirik, talde parlamentarioen eta foru parlamentarien elkarte bozeramaileek bidezkoa jotzen dute ezen, 2018ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez, Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren ordainsariak igotzea Estatuko legediak sektore publikoaren zerbitzuko langileentzat 2018rako ezartzen duen gehieneko gehikuntza globalaren zenbatekoan.

Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 37. artikuluan eta Nafarroako Parlamentuko

Lehendakariaren Estatutuan ezarritakoari jarraikiz, ERABAKI DA:

1. Ezartzea ezen, 2018ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez, Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren ordainsariak gehikuntza izanen dutela; hain zuzen ere, Estatuko legediak sektore publikoaren zerbitzuko langileentzat 2018rako ezartzen duen gehieneko gehikuntza globala.

2. Onestea ezen lehendakariaren 2018. urteko ordainsari gordina 57.253,14 eurokoa izanen dela.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2018ko urtarrilaren 15ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Foru parlamentarien bidaia ofizialengatiko ordainsariak 2018ko ekitaldirako.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko urtarrilaren 15ean eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuak emandako txostena ikusirik, talde parlamentarioen eta foru parlamentarien elkarte bozeramaileek bidezkoa jotzen dute 2018an bidaia ofizialengatiko ordainen zenbatekoak mantentzea.

Foru parlamentarien ordainsariei buruzko arauetan eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 15. eta 37. artikuluetan xedatutakoari jarraikiz, hona ERABAKIA:

1. Onestea, 2018rako, foru parlamentarien bidaia ofizialengatiko eta Legebiltzarreko langileek lanaren kariaz egiten dituztenengatiko ordainsarien araubidea. Haien zenbatekoak hauek dira:

– Nafarroatik kanpora eginiko bidaia ofizialengatiko ordainsariak (mantenu-gastu arruntak): 50 €/egun.

– Atzerrira eginiko bidaia ofizialengatiko ordainsariak (mantenu-gastu arruntak): 80 €/egun.

– Lokomozio-gastuengatiko ordainsariak: 0,31 €/km.

2. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduko 8. artikuluaekin bat (maiatzaren 24ko 174/1999 Foru Dekretua), honako hauek dira zerga-kargatik salbuetsiriko zenbatekoen mugak 2018rako:

– Mantenu-gastuengatik: Espainiako lurraldearen barneko joan-etorriak direnean, egunean 53,34 euro; eta atzerrira eginiko bidaiak direnean, egunean 91,35 euro.

– Lokomozio-gastuengatik: 0,32 euro kilometroko, gehi justifikaturiko bidesari eta aparkaleku gastuak.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2018ko urtarrilaren 15ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Foru parlamentariak bilkuretara bertaratzearen truke 2018an jasoko dituzten ordainsariak.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko urtarrilaren 15ean eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuak emandako txostena ikusirik, talde parlamentarioen eta foru parlamentarien elkarteen eledunek jotzen dute ezen, 2018ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez, bidezkoa dela foru parlamentariak bilkuretara bertaratzearen truke jasoko dituzten ordainsariak igotzea Estatuko legediak sektore publikoaren zerbitzuko langileentzat 2018rako ezartzen duen gehieneko gehikuntza globalaren zenbatekoan; bai eta Iruñetik kanpo bizi diren foru parlamentariak bizileku duten herritik deituak diren parlamentu-bilkuretara etortzeagatik ordaindutako lokomozio-gastuengatik ordainsaria kilometro bakoitzeko 0,31 eurokoa izatea ere.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 15. eta 37. artikuluek ezarritakoarekin bat, hona ERABAKIA:

1. Ezartzea ezen, 2018ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez, foru parlamentariak bilkuretara bertaratzearen truke jasoko dituzten ordainsariak gehikuntza izanen dutela; hain zuzen ere, Estatuko legediak sektore publikoaren zerbitzuko langileentzat 2018rako ezartzen duen gehieneko gehikuntza globala.

2. Onestea foru parlamentariak bilkuretara bertaratzearen truke 2018an jasoko dituzten

ordainsariak. Haien modalitateak eta zenbatekoak hauek dira:

– 137,52 euroko dieta, deituak diren ekitaldi parlamentarioetara bertaratzeagatik, helbidea Iruñean edo Iruñetik 25 kilometrora bitarteko herrietan daukaten foru parlamentarietzat.

– 162,61 euroko dieta, deituak diren ekitaldi parlamentarioetara bertaratzeagatik, helbidea Iruñetik 25 kilometro baino gehiagora dauden herrietan daukaten foru parlamentarietzat.

3. Ezartzea ezen, 2018ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez, Iruñetik kanpo bizi diren foru parlamentariak bizileku duten herritik deituak diren parlamentu-bilkuretara etortzeagatik ordaindutako lokomozio-gastuengatik ordainsaria kilometro bakoitzeko 0,31 eurokoa izanen dela.

4. Ezartzea ezen, foru parlamentarien ordainsariei buruzko arauekin eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren araudiarekin bat, Iruñetik kanpo bizi diren foru parlamentariak bizileku duten herritik deituak diren parlamentu-bilkuretara etortzeagatik ordaindutako lokomozio-gastuek pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren karga jasoko dutela.

5. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2018ko urtarrilaren 15ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Parlamentu-taldeek 2018an jasoko dituzten diru-sariak.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko urtarrilaren 15ean eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrak erabakia hartu ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuak emandako txostena ikusirik, talde parlamentarioen eta foru parlamentarien elkarrean eledunek bidezkoa jotzen dute, 2018ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez, talde parlamentarioek jasoko dituzten diru-sariek inolako igoerarik ez izatea.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 35. eta 37. artikuluek ezarritakoarekin bat, hona ERABAKIA:

1. Ezartzea, 2018ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez, talde parlamentarioek jasoko dituzten diru-sariek ez dutela inolako igoerarik izanen.

2. Onestea talde parlamentarioek jasoko dituzten ordainsariak, 2018ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez. Haien zenbatekoak hauek dira:

a) Diru-laguntza finkoa: 8.091,00 euro/hilabete/talde parlamentario.

b) Diru-laguntza aldakorra: Kontzeptu hauen baturaren arabera zenbatekoa:

– Funtzionamendu-gastuak: 1.462,00 euro/hilabete/parlamentario.

– Antolaketa-gastuak: 1.117,00 euro/hilabete/parlamentario.

– Langile eta jarduera gastuak: 4.172,00 euro/hilabete/talde parlamentarioko bost parlamentario bakoitzeko edo zatikiko.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2018ko urtarrilaren 15ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Nafarroako Parlamentuko behin-behineko langileen ordainsariak 2018ko ekitaldirako.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko urtarrilaren 15ean egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruak proposamena aurkeztu du, 2018ko urtarrilaren 9an, Nafarroako Parlamentuko behin-behineko langileen 2018ko ordainsariei buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 37. artikuluan eta Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuan ezarritakoari jarraikiz, ERABAKI DA:

1. Ezartzea ezen, 2018ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez, Nafarroako Parlamentuko behin-behineko langileen ordainsariek gehikuntza izanen dutela; hain zuzen ere, Estatuko legediak sektore publikoaren zerbitzuko langileentzat 2018rako ezartzen duen gehieneko gehikuntza globala.

2. Honako behin-behineko langileen ordainsari gordinak onestea, 2018. urterako:

– Lehendakaritzako Kabineteko burua: 51.651,04. euro.

– Lehendakaritzako idazkaria: 35.032,76 euro.

– Mahaiko kideen idazkaria: 28.171,22. euro.

– Talde parlamentarioen laguntzaileak: 28.171,22. euro.

3. Talde parlamentarioen laguntzaileei eta Mahaiko kideen idazkariari aplikatzea Mahaiaren 2012ko abenduaren 17ko Erabakiaren bidez zerbitzu-aitorpenari buruz onetsitako irizpideak.

4. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2018ko urtarrilaren 15ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

